URTAROEN ARABERAKO ARKITEKTURA
MERKATU ETA ADINDUEN BILGUNEA



MASTER AMAIERAKO LANA

Ikaslea: Sara Truelsen Barrena

Irakaslea: Ula Iruretagoiena Busturia

DIAGNOSIA

URTAROEN ARABERAKO ARKITEKTURA
Zer da?

Laredoko herriak pairatzen duen biztanleria desorekara moldatzen den arkitektura da.

Industria turistikoa eta higiezinen sektoreak eratutako hirigintza eta gizarte desorekari aurre egiteko tresna da.

Estrategia honek, HAPO-ak proposatutakoari alternatibak esploratzea du helburu. Hiri hutsuneak erabilita, periferian planteatzen den zabaltzea, herrian zentrifikatzea du helburu, hirigintza misto bat garatuz, zeinetan ekipamenduak, etxebizitzak eta industria txikiak BAT egiten duten.

ERABILERA MISTOA HIRI HOBEKUNTZA TRESNA GIZA
Helburua

Hiri mixto, konpaktu eta zentzuzkoak, tokiko merkataritzaren, erabilera ezberdinen eta gizarte klase ezberdinen alde egiten duen hirigintza.

XX. Mendean zehar, hiri modernoak ez du trinkotasun eta nahasketa hau ekoizteko gai izan. Gainera, iraganetik jasotako hiriguneetan tratu txarrak ere egin ditu.

Alabaina, ehun mistoak eta trinkoak dira zentralitatea sortzeko gai diren bakarrak, eta horregatik turismoaren industria edo higiezinen merkatua baloratzen dute.

Laredo erdialdearen eta alde zaharraren hiri ehunak, baditu oraindik hutsune ugari. Hutsune hauek, orain arte garatu den hirigintza aldatzeko aukera paregabeak dira.

Erabilera erresidentzial publikoa, komertzio eta ekipamendu publikoak bat egiteko aukera alegia.

HELDUEN HERRIA
Gazteen emigratzea

Turismoak eta honek dakarren eraikuntzaren boom-ak, etxebizitzen prezioak izugarri igotzea eragin du, Laredoko jende gazteak inguruko herrietara emigratzea eraginez. Gazteek alde egiterakoan, biztanleriaren bataz bestekoa zharkitu da, demografia desoreka bat sortuz.

HERRI ZENTRIFUGOA
Gizartekotasunaren galtzea eta Kotxearen menpekotasuna

Azken urteetako hirigintza zentrigugoak, hiriko elemetu guztiak zatika kokatu ditu: Etxebizitzak, ekipamenduak, aisguneak, supermerkatuak, industria... Hiri multifuntzional mixtoak alde batera utziz.



LAREDOREN BIKOIZTEA
Errealitatetik kanpo dagoen plana

Laredoren biztanleria finkoa eta herriak duen azalera eraikiaren arteko desoreka haundituko duen plana proposatzen du Udaleriak. Urtaro osoan erabiltzen diren etxebizitzen kopuru bera planteatzen du plangintzak periferian.

KOMERTZIO TXIKIEN GALTZEA
Arrantza eta nekazaritza ekologikoa

Udako biztanleria hazkundeak, periferian eskala handiko supermerkatuak kokatzea eragin du, jendea kotxea hartzera behartuz eta herriak duen komertzio txikiari kaltetuz.



METODOLOGIA

HERRI ODONTOLOGIA "HUTSUNEAK"
hiri sarearen lanketa

Herri zentroan aurkitzen diren hutsuneak, H.A.P.O-ak plantearitzen duen zabalkuntzari alternatiba bat suposatu dezakete.

Hiri kirurgia mota honekin, hiri sarean aurkitzen diren hutsune puntualen interbentzioa landuko da, esparru ugarietan onurak ekarriz.

Batetik, ERAIKUNTZAN, etxadien sendotzea ekartzen duelako, bestetik, HIRIGINTZAN, izan ere, eraikiko den bolumena, fatxada lerroa definituko duelako eta horrenbestez espazio publikoa ere. Azkenik, lanketa SOZIALA ere ematen da, hutsunea, eremua aktibatu dezaketen erabilerekin okupatu daitekelako.

HUTSUNEEN:

1. **DETEKTATZEA**
2. **KLASIFIZAZIO ETA KUANTIFIKAZIOA**
3. **EGOKITZAPENA ETA LORPENA**



EKIPAMENDUEN BERRANTOLAKETA
misto, konpaktu eta funtzional

Herriak dituen arazo nagusietako bat, ekipamenduak dira. Ekipamendu ugari daude, baina gehienak ez dute herritarrei zuzenduta beharrak asetzen.

Eraikin gehienek, erabilera aldaketen ondorioz, aldaketa nabarmenak sufritu dituzte, eraikinak oso zatikatuak eta funtzio jakin bat izan gabe geratu dira. Eraikinak askotan, abandonatuz eta bigarren mailako erabilerak sartuz.

Herritarren beharrak asetzeaz gain, ekipamenduek, udan daturren jendea berenganatzeko aukera izan behar dute. Hori dela eta, eraikinak prest egon behar dute, erabilera, okupazio eta tamaina aldaketerako. Urtaroa, faktore garrantsitzu bezela jokatuz.



AUKERATUTAKO PARTZELAK + PROGRAMA

Demografia desoreka egonkortzeko, honelako PROIEKTUA proposatzen da:



Eraikin misto bat proposatzen da, herrian beharrezkoa den **adinduen bilgunea** hartuko duena. Horrez gain, **erabilera erresidentziala** izango du, adinduentzako etxebizitza independienteak eskeiniz eta laguntza behar izanez gero komunitatean bizitzeko aukera ere.

Baldintza bakarra egongo da: Haien **etxebizitza, familia gazteei eskeini beharko dizkiete alokairuan.**





0 GAUR EGUNGO EGOERA
2 MERKATUEN FATXADEN ARTEKO DISTANTZIA = 4m

1 ERAIKINAREN ERAISPENA



2 "L" FORMAKO ORUBEA LORTU
MERKATU EKOLOGIKOTIK 10M ATZERATU



3 ORUBEA ERAIKIGARRITASUN MAXIMORA ERAMANDA
"L" FORMAKO BOLUMEN TRINKOA LORTU



4 BOLUMENAREN HUSTUKETA
BEHAR BASIKOAK LORTZEKO



5 BOLUMETRIA FINALA: TEILATU INKLINATUAK + MAILAKATUTAKO TERRAZAK



6 ERABILERA MIXTOA = BEHAR EZBERDINEKO ESPAZIOAK



zehartzaileko ebakieta 1/200





"NORTASUN EZBERDINEKO EREMUAK"

Bolumetria zorrotz honi "pisua" kentzeko, hustuketak egin dira zenbait lekutan, barne terrazetan bihurtu direzenak. Era honetan ere, ezaugarri ezberdineko eremuak sortzen dira eraikinean: kanpoaldeko terrazak (patioak), terraza estaliak... Barne-kanpo trafazera ezberdinak lortuz.

"ERABILEREN ARABERAKO ESPAZIOAK"

Erabilera bakoitzak behar zehatz batzuk eskatzen ditu, ebaketa honetan hori da islatzen duena.

+ Lehenengo bi solairuak (merkatu + eremu multifuntzibala), eremu zabal eta handiak eskatzen ditu. Hori dela eta, egiturak behar horretara moldatzen da.

+ Goiko eremuetan berriz, fatxada perimetroa haunditu egiten da patioei esker. Era horretan adinduen bilgunea behar duen argiztapena eta barne - kanpo erlazioa nabarigarria izango da.

"BARNE KALEA"

Bi merkatuen arteko erlazio zuzena ahalbidetzen duen bi alturako "barne kalea" proiektatu da eta behe oina artikulatzen lagunduko du. Hau da, kale honek sarrera, fluxu eta konexio bertikal guztiak batuko ditu.

Horrez gain, egoteko espazio batean bilakatzen da, plaza estali baten izaera hartuz.

"MERKATU PLAZA"

Merkatuko arkuak ireki direlarik, plazarekiko konexioa zuzena bihurtu da eta horrek plazaren berrantolaketa bat eskatu du.

Zuhaitzen kokapena, ezinbestekoa da Menendez Pelayo pasealekura ematen duen plaza zatian. Izan ere, hego-ekialde norabidea duelako eta bertan dauden eraikinak baxuak dira. Bertan eguzkia emango du ia egun osoan.

Bestalde, Dr. Velasco kalera aurrera egiten dugularik, itzala nagusitzen da eraikin altuak agertzean. Beraz, begetazioa murriztuko da zonalde horretan.



MULTIBAZKIDEA
MULTIBAZKIDEA
MULTIBAZKIDEA